



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko urtarrilaren 27a

6. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-26/ITP-00006. Interpelazioa, foru- eta toki-administrazioaren gobernantza-ereduan berdintasuna eta genero-ikuspegia baliatzeari buruzko politika orokorrari buruzkoa. Oihana Gallo San Román andreak egin du (3. or.).
- 11-26/ITP-00007. Interpelazioa, bizikidetasunaren eta memoriaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (4. or.).
- 11-26/ITP-00008. Interpelazioa, Lizarrako eta Tuterako eskualdeko ospitaleei dagokienez Osasun Departamentuak darabilen politika orokorrari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (5. or.).
- 11-26/ITP-00009. Interpelazioa, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako politika orokorrari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-26/POR-00025. Galdera, migrazio-aukeraren aldeko departamentuarteko lehenbiziko batzordeari buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andreak egin du (7. or.).
- 11-26/POR-00026. Galdera, García Orcoyen Ospitalean traumatologiako profesionalak faltatzeari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (7. or.).
- 11-26/POR-00027. Galdera, Osasun Departamentuak medikuen gainkarga eta gehiegizko lanaldia murrizteko hartuko dituen neurriei buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (8. or.).
- 11-26/POR-00028. Galdera, Nafarroako jatorri-deiturako ardoaren ikusgarritasuna, kontsumoa eta lehiakortasuna sendotzeko neurriei buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (9. or.).
- 11-26/POR-00029. Galdera, erregio-lehiakortasunari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (9. or.).
- 11-26/POR-00030. Galdera, Sendavivan obrak eta kontratuak esleitzearen gaineko erantzukizunari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (10. or.).
- 11-26/POR-00031. Galdera, Errenta Bermatuari buruzko Legearen aldaketari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (10. or.).

- 11-26/POR-00033. Galdera, Nafarroako trenbide- eta errepide-sareen egoerari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (11. or.).
- 11-26/POR-00034. Galdera, Txinara oraintsu egindako bidaiaren balorazioari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (11. or.).
- 11-26/POR-00035. Galdera, Open House esparru-akordioaren helburuei, ekintzei eta egutegiari eta zahar-etxeetako langileen hitzarmenari buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (12. or.).
- 11-26/POR-00036. Galdera, honako mozio honen betetze-mailari buruzkoa: Nafarroako Gobernuak premiatzen da berriz egin eta bultza dezan 6tik 9 urtera bitarteko ikasleen artean haurren obesitatea prebenitzeko kanpaina bat. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (12. or.).
- 11-26/POR-00037. Galdera, Nafarroak Fitur azokan parte-hartzeari buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (13. or.).
- 11-26/POR-00038. Galdera, Espainiako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitatean azpiegituren arloan egiten dituen lanei buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (14. or.).
- 11-26/POR-00039. Galdera, akordio programatikoa betetzen dela bermatzeko landu beharreko erronka, zailtasun eta jarduketa nagusiei buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (14. or.).
- 11-26/POR-00040. Galdera, EBren eta MERCOSUREn arteko Merkataritza Askearen Tratatuaren aurka egiteko eta Nafarroako lehen sektorea defendatzeko jarduketei buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (15. or.).
- 11-26/POR-00041. Galdera, Sendavivako obren esleipenen kontratuei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (15. or.).
- 11-26/POR-00042. Galdera, Herri Lanen Zuzendaritza Nagusian ia bi hilabetez zuzendaririk ez egoteari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (16. or.).
- 11-26/POR-00007. Galdera, animaliak babesteko kontsulta-batzordearen betetze-mailari eta egiazko jardunari buruzkoa. Osoko Bilkuran izapidetzea (16. or.).
- 11-26/POR-00024. Galdera, migrazio-aukeraren aldeko departamentuarteko lehenbiziko batzordeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (17. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-26/ACOP-00001. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, zeinaren bidez Donald Trump lehendakariak sortutako Bake Batzarra arbuiatzen baitu (18. or.).
- 11-26/NDR-00001. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, kontroleko osoko bilkuren gai-zerrenda dela-eta (18. or.).
- 11-26/CCPE-00001. Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez erakundearen administratzaile izendatzen baitu María Mercedes Hernández Asirón (19. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-26/ITP-00006. Interpelazioa, foru- eta toki-administrazioaren gobernantza-ereduan berdintasuna eta genero-ikuspegia baliatzeari buruzko politika orokorrari buruzkoa

OIHANA GALLO SAN ROMÁN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihana Gallo San Román andreak egindako interpelazioa, foru- eta toki-administrazioaren gobernantza-ereduan berdintasuna eta genero-ikuspegia baliatzeari buruzko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Oihana Gallo San Román andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak eta Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Nafarroako Plan Estrategikoak ezartzen dute zeharkakotu egin behar dela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa politika publiko guztien diseinuan, ezarpenean eta ebaluazioan.

Hori dela-eta, foru- eta toki-administrazioaren gobernantza-ereduan berdintasuna eta genero-ikuspegia baliatzeari buruzko politika orokorrari buruzko honako interpelazio hau aurkezten diogu Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariari.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Oihana Gallo San Román

11-26/ITP-00007. Interpelazioa, bizikidetasunaren eta memoriaren arloko politika orokorrari buruzkoa

ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egindako interpelazioa, bizikidetasunaren eta memoriaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Javier Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakorearen babesean, bizikidetasunari eta memoriari buruzko honako interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuako bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari:

Berdintasunean eta askatasunean bizitzea da Nafarroako gizartean dugun gizarte-erronka handienetako bat.

Asko dira konpondu gabe dauden arazoak; horietako batzuk, gizarte-eraldaketa sakonen eta gure gizarteak aurre egin beharreko erronka eta errealitate berrien ondorio dira. Beste batzuk gure iragan urrun edo hurbiletik heldu diren zauri sakoetatik datoz.

Nolanahi ere, inoiz baino beharrezkoagoa da arazoak zeharkakotasunez eta pluraltasunez jorraztera bideratutako politikak eta konponbideak ezartzea, beti bilatuko dutenak indarkeria pairatu dutenekiko gizarte demokratiko, berdintasunezko eta justu bat lortzea, orain eta etorkizunean.

Horregatik guztiagatik, bizikidetasunaren eta memoriaren arloan garatzen ari diren eta etorkizunean ezarri nahi diren politikei buruzko honako interpelazio hau aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

11-26/ITP-00008. Interpelazioa, Lizarrako eta Tuterako eskualdeko ospitaleei dagokienez Osasun Departamentuak darabilen politika orokorrari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako interpelazioa, Lizarrako eta Tuterako eskualdeko ospitaleei dagokienez Osasun Departamentuak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du:

Eskualdeko ospitaleek funtsezko zeregina betetzen dute Nafarroako osasun-sistema publikoan, hurbileko eta kalitatezko arreta bermatzen baitute lurraldeko eremu askotan. Halatan, Lizarrako García Orcoyen eta Tuterako Reina Sofía ospitaleak erreferentzia-zentroak dira 160.000 pertsona ingururentzat, eta funtsezkoak dira lurralde-kohe-siorako eta osasun-sarbidearen ekitaterako.

Hala ere, azken urteotan, bi ospitale horietan finkatuta zeuden zerbitzuak pixkanaka murriztu egin dira, eta, horren ondorioz, gero eta paziente gehiago bideratu dira beste zentro batzuetara, eta osasun-sare publikoaren barruan duten asistentzia-gaitasuna ahuldu egin da.

Osasun Departamentuak behin eta berriz azpimarratu du zer garrantzitsuak diren azpiegituretan eta teknologian egindako inbertsioak. Hala ere, beharrezkoak izanik ere, inbertsio horiek ez dira aski baldin eta erreferentziazko biztanleriari arreta emateko zerbitzurik, profesionalik eta benetako ahalmenik ez badago.

Egoera horrek eragin zuzena du Lizarrako eta Tuterako osasun-barrutietako bizilagunengan; izan ere, desplazamendu luzeak egin behar dituzte, zenbait prestazio eskuratzeko zailtasunak dituzte eta osasun-arretaren narriadura sumatzen dute, eta horrek lurraldeen arteko desberdintasunak sortzen ditu.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da Osasun Departamentuak azaltzea zein den eskualdeko ospitaleekiko darabilen politikaren orientazio orokorra, zer irizpidek gidatzen duten zerbitzuen eta bideratzeen berrantolaketa, eta zer neurri aurreikusten duen Lizarran eta Tuteran osasun-arreta nahikoa eta bidezkoa bermatzeko.

Hortaz, Lizarrako eta Tuterako eskualdeko ospitaleei dagokienez Osasun Departamentuak darabilen politika orokorrari buruzko interpelazio hau aurkezten diogu Osasuneko kontseilariari.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-26/ITP-00009. Interpelazioa, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako politika orokorrari buruzkoa

MARÍA ARANZASU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzasu Biurrun Urpegui andreak egindako interpelazioa, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako politikei buruzko honako interpelazio hau aurkezten dio lehen lehendakariorde eta Lehendakari eta Berdintasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Desberdinkeria adierazpen muturrekoenetako bat eta gure gizarteak duen gabezia demo-

kratiko handienetako bat da emakumeen aurkako indarkeria.

Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko Foru Legearen 3. artikuluan ezartzen denez, emakumeen kontrako indarkeria da emakumea izateagatik emakumeen kontra bideratzen dena edo haiengan proportziorik gabeko eragina duena, genero diskriminazioaren agerpen gisa eta emakumeentzako kalte edo oinaze fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa dakarrena edo ekar deza-keena, mehatxuak, beldurrarazteak eta hertsatzeak edo askatasun-gabetze arbitrarioak barne hartuta, bizitza publikoan nahiz pribatuan gertatzen direnak.

Ekintza Plana Nafarroako Gobernuak duen plangintza-tresna bat da, 14/2015 Foru Legearen garapena bermatzeko eta Nafarroako Foru Komunitatean emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiten jarraitzeko.

Horregatik, lehenengo lehendakariorde eta Lehendakari eta Berdintasuneko kontseilariari interpelazio hau aurkezten diogu, garatzen ari den politika orokorra azal dezan, bai eta politika horren plangintza ere, Nafarroako Foru Komunitatean emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko bidean aitzina egiteko.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

F saila:
GALDERAK

11-26/POR-00025. Galdera, migrazio-aukeraren aldeko departamentuarterko lehenbiziko batzordeari buruzkoa*MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak egindako galdera, migrazio-aukeraren aldeko departamentuarterko lehenbiziko batzordeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Olga Chueca Chueca andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak proposatuta, Migrazio-aukeraren aldeko departamentuarterko lehenbiziko batzordea sortzea, bai eta haren osaera ere, erabaki du.

Zer helburu bilatzen du Gobernuak departamentuarterko batzorde berri hau eratzean?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Olga Chueca Chueca

11-26/POR-00026. Galdera, García Orcoyen Ospitalean traumatologiako profesionalak faltatzeari buruzkoa*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, García Orcoyen Ospitalean traumatologiako profesionalak faltatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko

Osasuneko kontseilariak ahoz erantzun dezan urtarrilaren 29ko Osoko Bilkuran:

Komunikabideek argitaratu dute aste barruan ez dagoela guardiako traumatologiako langilerik Lizarrako García Orcoyen ospitalean. Hori dela-eta, Lizarrako Osasun Barrutiko erabiltzaileak Iruñeko Nafarroako Unibertsitate Ospitalera bideratu eta eraman behar dituzte, han arreta eman diezaieten. García Orcoyen Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuko langileen ohar bat ere argitaratu da, egoera horrek ospitale honetako larrialdietara joaten diren per-

tsonen osasun-arreta egokirako sortzen dituen afekzioak eta arazoak adieraziz.

Hori dela-eta, parlamentari honek honako galdera hau egiten du:

Zerk eragin du Lizarrako García Orcoyen ospitalean traumatologiako profesionalik ez egotea? Nola eta noiz bermatuko da traumatologiako profesionalak egotea guardian larrialdietan?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

11-26/POR-00027. Galdera, Osasun Departamentuak medikuen gainkarga eta gehiegizko lanaldia murrizteko hartuko dituen neurriei buruzkoa

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, Osasun Departamentuak medikuen gainkarga eta gehiegizko lanaldia murrizteko hartuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera aurkezten du Osasuneko kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Osasun Zerbitzuan lan egiten duten medikuen gainkarga eta gehiegizko lanaldia kontuan hartuta, zer neurri hartuko du Osasun Departamentuak gainkarga eta gehiegizko lanaldia murrizteko?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortín

11-26/POR-00028. Galdera, Nafarroako jatorri-deiturako ardoaren ikusgarritasuna, kontsumoa eta lehiakortasuna sendotzeko neurriei buruzkoa

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, Nafarroako jatorri-deiturako ardoaren ikusgarritasuna, kontsumoa eta lehiakortasuna sendotzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Mena Blasco jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Funtsezkoa da Nafarroan ardoa sustatzea, enplegua sortzen duen, landa-biztanleria finkatzen duen eta gure nortasuna proiektatzen duen sektore estrategiko bati laguntzeko.

Zer neurri bultzatzen ari da Gobernuak merkatu nazional eta nazioartekoetan ardoaren ikusgarritasuna, kontsumoa eta lehiakortasuna indartzeko?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

11-26/POR-00029. Galdera, erregio-lehiakortasunari buruzkoa

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako galdera, erregio-lehiakortasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Foru Komunitatea da hazkunde ekonomikoaren buru, eta berresten da Nafarroak bigarren postua berreskuratu duela erregio-lehiakortasunaren ranking nazionalan.

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak igoera horri buruz, eta zer neurri hartu nahi ditu lidergo ekonomikoaren posizio hori sendotzeko?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

11-26/POR-00030. Galdera, Sendavivan obrak eta kontratuak esleitzearen gaineko erantzukizunari buruzkoa

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIAIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egindako galdera, Sendavivan obrak eta kontratuak esleitzearen gaineko erantzukizunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuako lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Sendavivan obrak eta kontratuak esleitzeari dagokionez, zergatik ez diozu aurre egiten zure erantzukizunari?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia

11-26/POR-00031. Galdera, Errenta Bermatuari buruzko Legearen aldaketari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Errenta Bermatuari buruzko Legearen aldaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariari, ahoz erantzun dezan:

Orain dela jada urtebete, 2025eko urtarrilean, Nafarroako Gobernuak Errenta Bermatuaren Legearen erreforma iragarri zuen. Hala ere, oraindik ez da proposamen zehatzik aurkeztu, ez eta iragarritako legegintza-izapidea hasi ere. Noiz aurkeztuko du Gobernuak erreforma hori eta nola egin nahi du erreforma?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-26/POR-00033. Galdera, Nafarroako trenbide- eta errepide-sareen egoerari buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Nafarroako trenbide- eta errepide-sareen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

2026ko urtarrilaren 29ko Osoko Bilkurarako galdera arrunta:

Nafarroako Gobernuko lehendakaria:

Zein da Nafarroako trenbide-sarearen eta Nafarroako errepide-sarearen egoera?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-26/POR-00034. Galdera, Txinara oraintsu egindako bidaiaren balorazioari buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, Txinara oraintsu egindako bidaiaren balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak xedatzen duenaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak urtarrilaren 29ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela gutxi, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak bisita instituzional bat egin zuen Txinara, Asiako herrialde-arekiko merkataritza-harremanak areagotzeko xedez. Hori dela eta, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariari galdetzen diogu ea zer balorazio egiten duen bidaiari buruz eta ezarritako helburuei dagokienez lortzen ahal denari buruz, are gehiago Trumpek egun darabilen gatazka-politikaren testuinguru geopolitikoan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-26/POR-00035. Galdera, Open House esparru-akordioaren helburuei, ekintzei eta egutegiari eta zahar-etxeetako langileen hitzarmenari buruzkoa

ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, Open House esparru-akordioaren helburuei, ekintzei eta egutegiari eta zahar-etxeetako langileen hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Isabel Aranburu Berguak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Kontseilari Carmen Maeztu Villafrancari, urtarrilaren 29ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Geroa Bai etengabe arduratzen da adinekoei bai egoitza-zentroetan, bai eguneko zentroetan ematen zaien arretaren nahikotasunaz eta kalitateaz.

Zehazki, une honetan bi kontuk arduratzen gaituzte: kudeaketa eta hori Open House esparru-akordioan nola gauzatzen den, eta oraindik ez dagoela langileentzako lan-hitzarmenik.

Horregatik, honako galdera hau egiten diogu Eskubide Sozialetako kontseilariari: zer helburu, ekintza eta egutegi aurreikusten ditu zure departamentuak bi kontu horiek direla-eta gure erkidegoko egoitza-zentro eta eguneko zentroetarako?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Isabel Aranburu Bergua

11-26/POR-00036. Galdera, honako mozio honen betetze-mailari buruzkoa: Nafarroako Gobernua premiatzen da berriz egin eta bultzatzen 6tik 9 urtera bitarteko ikasleen artean haurren obesitatea prebenitzeko kanpaina bat

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, honako mozio honen betetze-mailari buruzkoa: Nafarroako Gobernua premiatzen da berriz egin eta bultzatzen 6tik

9 urtera bitarteko ikasleen artean haurren obesitatea prebenitzeko kanpaina bat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Zure departamentuak aurreikusita al dauka 2026. urtean betetzea Kultura, Kirol eta Turismo Batzordeak 2025eko otsailaren 19an onetsitako 11-25/MOC-00005 mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen berriz egin eta bultza dezan 6tik 9 urtera bitarteko ikasleen artean haurren obesitatea prebenitzeko kanpaina bat?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Francisco Javier Trigo Oubiña

11-26/POR-00037. Galdera, Nafarroak Fitur azokan parte-hartzeari buruzkoa**DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako galdera, Nafarroak Fitur azokan parte-hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Daniel López Córdoba, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak 2026ko urtarrilaren 29ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zer balorazio egiten duzu Nafarroak Fitur azokan parte-hartzeari buruz?

Iruñean, 2026ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

11-26/POR-00038. Galdera, Espainiako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitatean azpiegituren arloan egiten dituen lanei buruzkoa

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Espainiako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitatean azpiegituren arloan egiten dituen lanei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak urtarrilaren 29ko Osoko Bilkuran erantzuteko:

Nafarroako Gobernuak babesten al ditu Espainiako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitatean azpiegituren arloan egiten dituen lanak?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortín

11-26/POR-00039. Galdera, akordio programatikoa betetzen dela bermatzeko landu beharreko erronka, zailtasun eta jarduketa nagusiei buruzkoa

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, akordio programatikoa betetzen dela bermatzeko landu beharreko erronka, zailtasun eta jarduketa nagusiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariari zuzendua, 2026ko urtarrilaren 29ko Osoko Bilkurako gai-zerrendan sar dadin:

2026ko urtarrilaren 26an egin da herritarrei kontuak emateko bigarren ariketa, legegintzaldiko programa-akordioaren betetze-mailaren berri emateko.

Zeintzuk dira Nafarroako Gobernuak aurre egin beharreko erronka, zailtasun eta jarduketa nagusiak, akordio programatikoa hartutako konpromisoak legegintzaldia amaitu baino lehen benetan betetzen direla bermatzeko?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

11-26/POR-00040. Galdera, EBren eta MERCOSUREn arteko Merkataritza Askearen Tratatuaren aurka egiteko eta Nafarroako lehen sektorea defendatzeko jarduketei buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, EBren eta MERCOSUREn arteko Merkataritza Askearen Tratatuaren aurka egiteko eta Nafarroako lehen sektorea defendatzeko jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak 2026ko urtarrilaren 29ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Joan den urtarrilaren 17an Paraguain EBren eta MERCOSUREn artean sinatu den Merkataritza Askearen Tratatu kolpe eta mehatxu handia da Nafarroako lehen sektorearentzat.

Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako herriaren subiranotasun demokratikoaren egoitza denak, tratatu kaltegarri horren aurkako bi erabaki onetsi zituen gehiengo politiko handi batez 2025eko urtarrilaren 21ean eta 2026ko urtarrilaren 22an. Nafarroako lehen sektoreko organizazioen, ordezkarien eta profesionalen arbuio-sentimendua ere ahobatezkoa da.

Orain, Nafarroako Gobernuari dagokio, ohorez eta Nafarroako landa-eremuaren defentsan, Merkataritza Askearen Tratatuari aurka egitean aitzindari izatea.

Zer egingen du Nafarroako Gobernuak EBren eta MERCOSUREn arteko Merkataritza Askearen Tratatuaren aurka egiteko eta Nafarroako lehen sektorea defendatzeko?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-26/POR-00041. Galdera, Sendavivako obren esleipenen kontratuei buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Sendavivako obren esleipenen kontratuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

2026ko urtarrilaren 29ko Osoko Bilkurarako aparteko galdera.

Nafarroako Gobernuako lehendakaria:

Iruñeko 5. zenbakiko Epaitegiak aurretiazko eginbideak ireki ditu VOXek aurkeztutako kereila

baten ondorioz, eta eginbide horietan Nafarroako Gobernuari eskatu dizkio Sendavivako obren esleipenen kontratuak. Hori horrela, Nafarroako Gobernuako lehendakariak ba al du asmorik Nafarroako Parlamentuan azalpenak ematera agertzeko?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-26/POR-00042. Galdera, Herri Lanen Zuzendaritza Nagusian ia bi hilabetez zuzendaririk ez egoteari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Herri Lanen Zuzendaritza Nagusian ia bi hilabetez zuzendaririk ez egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer eragin izan du Herri Lanen Zuzendaritza Nagusiaren lanean ia bi hilabetez zuzendaririk ez egoteak, Pedro López kargutik kendu ondoren?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

11-26/POR-00007. Galdera, animaliak babesteko kontsulta-batzordearen betetze-mailari eta egiazko jardunari buruzkoa

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Legebiltzarreko Osoko Bilkuran izapidetu dadin Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, animaliak babesteko kontsulta-batzordearen betetze-mailari eta egiazko jardunari buruzkoa.

Galdera, 2026ko urtarrilaren 13ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/POR-00024. Galdera, migrazio-aukeraren aldeko departamentuar- teko lehenbiziko batzordeari buruzkoa

GALDERA ERRETIRATZEA

2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea María Olga Chueca Chueca andreak migrazio-aukeraren aldeko departamentuar-teko lehenbiziko batzordeari buruz egindako ahozko galdera erretiratu izana. Galdera 2026ko

urtarrilaren 23ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-26/ACOP-00001. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, zeinaren bidez Donald Trump lehendakariak sortutako Bake Batzarra arbuia-tzen baitu

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehena:

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Donald Trump lehendakariak sortutako Bake Batzarra arbuia-tzen du. Organo horrek, nazioarteko zuzen-bidearen estandarrak ez betetzeaz gain, nazioarteko ordena dinamitatu nahi du, bere grina inperialistarekin jarraitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak garape-nerako lankidetzarekiko, laguntza humanitarioarekiko, elkartasunarekiko, sentsibilizazioarekiko eta herri palestinarren aldeko gizarte-eraldaketarako hezkuntzarekiko konpromisoa adierazten du.

3. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak bere babesa adierazten die Palestinako herriari eta estatu subirano batean bakean bizitzeko duen eskubideari. Hartara, herritar-ekimenei lana aitortzen eta balioesten du, Gernika-Palestina, Yala Nafarroa edo Salam Gazarena kasu, funtsezko zeregina baitute gizarte-sentsibilizazioan eta elkartasun aktiboaren eraikuntzan.

4. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak nazioarteko erakundeak premiatzen ditu lagundu dezaten tentsioak arintzen eta bake globala babesten bide diplomatikoen eta Nazio Batuen Erakundearen bidez.

Bigarrena:

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/NDR-00001. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, kontrol-eko osoko bilkuren gai-zerrenda dela-eta

2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

Lehenbizikoa. Gobernuari zuzendutako galderak eta interpelazioak gauzatzera mugatutako kontrol-bilkuren honako gai-zerrenda hau finkatzea:

1. Aurrena, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 213. artikulua 1. apartatuaren bigarren parrafoan aipatzen diren gaurkotasan handiko galderak sartuko dira.

2. Ondoren, bi interpelazio sartuko dira dago-kion ordenaren arabera, salbu eta Mahaiak, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, interpelazio-ren bat atzeratu baldin badu —Nafarroako Gobernuak eskatuta, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 208. artikulua 3. apartatuak xedatzen duenaren arabera eta, ahal dela, astele-

heneko 09:30ak baino lehenago—; kasu horretan, hiru interpelazio eztabaidatzen ahalko dira.

3. Azkenik, lehendakariari eta Gobernuako kideei zuzendutako galdera arruntak sartuko dira.

Bigarrena. Erabaki hau Nafarroako Gobernua-ri eta talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/CCPE-00001. Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez erakundearen administratzaile izendatzen baitu María Mercedes Hernández Asirón

Erakundearen egungo administratzailea 2026ko urtarrilaren 17an jubilatuta zen.

Nafarroako Kontuen Ganberaren Antolaketa-arako Erregelamenduaren 12.3 artikulua xedatzen du Lehendakariak administratzailea askatasunez izendatu eta kargutik kenduko duela, eta Kontuen Ganberako "C" mailako funtzionarioen artean hautatuko duela.

Beraz, lehendakaria naizen honek, nire ahalmen eta eskumenak baliatuta,

EBATZI DUT:

Lehena. María Mercedes Hernández Asirón andrea Kontuen Ganberako administratzaile izendatzea, 2026ko urtarrilaren 19tik aurrerako ondorioekin.

Bigarrena. Eskerrak ematea Julia Elizalde Elizalderi bere ibilbide osoan zehar erakunde honi emandako zerbitzuengatik.

Hirugarrena. Ebazpen hau María Mercedes Hernández Asiróni eta Julia Elizalde Elizalderi jakinaraztea, eta Kontuen Ganberako langile guztiei jakinaraztea intranet bidez, jakinaren gainean egon daitezten.

Laugarrena. Agintzea ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 14an

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

